



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Aritzatxuko kantinaren emakidaren Administrazio-baldintza zehatzen agirien zuzenketa eta proposamenak aurkezteko epe berria.

2024ko apirilaren 11ko 1.584 Alkatetza Dekretuz, 2024ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Aritzatxuko kantinaren emakidaren Administrazio-baldintza zehatzen agiriak zuzentzea erabaki zen modu honetan:

- Administrazio-baldintza zehatzen 4. atalean (Esleipen irizpideak), honakoa ipintzea:
«Eskainitako prezioa: $P_n = 50 \times (E_n/E_o)$.»
- Honakoa ipintzen duen lekuan:
«Eskainitako prezioa: $P_n = 50 \times (E_o/E_n)$.»
- Administrazio-baldintza zehatzen 10. atalean (Eskariak aurkeztea), honakoa ipintzea:
«Posta bulegoetan, erregelamendu bidez araututako moduan.»
- Honakoa ipintzen duen lekuan:
«Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.»

Eta honako paragrafo hau gehitzea: «Edozein kasutan, dokumentazioa gutunazal edo artxibo itxietan aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri digital bidez sinatuta kontratatzailearen profilean aurkezten den kasuetan.»

- Administrazio-baldintza zehatzen 15. ataleko B) azpiatalean (Betebehar bereziak), honakoa ipintzea:
«Hondartzaren kudeaketarako Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena (2022-2024) betetzeko, administrazioak eskatzen dizkionak bete beharko ditu esleipendunak.»
- Honakoa ipintzen duen lekuan:

«Bermeoko Udala Bizkaiko Foru Aldundiaren Kudeaketarako Sistema Integratuan dago Aritzatxuko hondartza kudeatzeko, beraz, sistema horrek ezarritakoa bete beharko du esleipendunak. Horretarako, eskatzen diren agiriak finkatutako epeetan bete beharko ditu (fitxak, etb) eta udalaren laguntza eta argibideak eskura edukiko ditu.»

Hori dela eta, proposamena aurkezteko 15 laneguneko epe berri bat zabaltzen da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaintzak aurkeztuta izan dituzten parte hartzaileek ere, proposamenak aurkeztu beharko dituzte berriro ere, 15 laneguneko epe horretan.

Bermeon, 2024ko apirilaren 11n. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly